



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN EBAZPENA

### BIZKAIKO HORMIGOIA

#### 230-ZEH-2018 LEA/AVC espedientea

##### Aurkibidea:

I.- AURREKARIAK.....	1
II. MERKATUA.....	3
1. Produktu-merkatua.....	3
2. Merkatu geografikoa .....	5
III. ESKAINTZAREN ANALISIA .....	6
1. Zementuaren sektorea, EAEn .....	7
2. Zementuaren sektorea, EAEn. ANEFHOP enpresarekin kidetutako enpresak .....	9
IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK .....	12
1. Aztertutako jokabidea.....	12
2. Ebazpena emateko eskumena duen organoa.....	14
V. EBAZTEN DU .....	15

##### Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, lehendakaria  
Rafael Iturriaga Nieva, kontseilukidea  
Enara Venturini Álvarez, kontseilukide eta idazkaria

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2018ko uztailaren 26ko bileran (adierazitakoek parte hartuta), ebazpen hau eman du 230-ZEH-2018 BIZKAIKO HORMIGOIA espedientean.

### I.- AURREKARIAK

2. Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen (aurrerantzean, LDL) 1. artikulua usteko arau-hauste baten berri jaso zuen. Arau-hauste hori Bizkaiko herri-lanerako hormigoia enpresa hornitzaileek hormigoia prezioa adostearekin eta hormigoia merkaturatzeko merkatua banatzearekin lotuta zegoen.



Salatutako enpresak, besteak beste, HORMIGONES ENCARTACIONES SAU eta HANSON HISPANIA SA izan ziren.

Dirudienez, Bizkaian egin diren edo egiten ari diren hainbat herri-lanetan izan ziren jarrera horiek, hala nola Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak lizitatu zuen Mungiako ekaitz-andelari dagokionean.

**3.** 2017ko abenduaren 18an, Ikerketa Zuzendaritzak isilpeko ikerketa hasi zuen, Bizkaiko herri-lanetarako hormigoia merkaturatzeari dagokionez kasuan kasuko zehapen-espedientearen izapidea hasi baino lehen.

Isilpeko informazio horren esparruan, baldintza-agiriak eta herri-lan jakin batzuen dokumentuak aztertu ziren; tartean, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak lizitatutako Mungiako ekaitz-andelaren obrari dagozkionak, eta, zehazki, lizitazio-, esleipen- eta egikaritze-prezioen ingurukoak.

Egindako ikerketen arabera, ondorioztatu zen obra DRAGADOS SA/INBISA CONSTRUCCIÓN (BYCO SA) aldi baterako enpresa-elkarteari esleitu ondoren, elkarteak zenbait hornitzailei eskatu zizkiela behin betiko prezioak. HORMIGONES ENCARTACIONES SAU enpresarekin hornikuntzarako akordio batera iritsi ondoren, hormigoia ez ematea erabaki zuen justifikatutako arrazoirik gabe, eta, beraz, enpresa-elkarteak beste hornitzaile batera jo behar izan zuen; hain zuzen ere, HANSON HISPANIA SA enpresara, zeinak prezio altuagoan hornitu zuen.

Azterketa hori eta salatzaile anonimoak adierazitakoa bat zetozen.

**4.** 2018ko apirilaren 25ean, Ikerketa Zuzendaritzak ohar laburra igorri zion Lehiaren Zuzendaritzari, antzemandako jokabideak azaltzeko, otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 2.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz (Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko Legea), eta LEA jokabideak aztertzeko eskumena zuela adierazi zuen ohar hartan.

2018ko otsailaren 2an Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren (MLBN) ofizioa jaso zen, non, jasotako proposamenari jarraikiz, gertaera jakin horiek aztertu eta ebazteko eskumena LEAri zegokiola jotzen zuen. Gainera, MLBNko Lehiaren Zuzendaritzak, zehapen-espedientea hastekotan, alderdi interesdun gisa onartzeko ere eskatu zuen.

**5.** LDLren 49.2 artikulua xedatzen du ustezko arau-haustearen berri eman denez, Ikerketa Zuzendaritzak aukera izango duela isilpean informazioa eskuratzeko, baita gertakari horretan parte hartu duten enpresen egoitzetan ikertzeko ere, zehapen-espedientea hasteko arrazoirik dagoen edo ez erabaki ahal izateko.

Artikulu hori oinarri hartuta, 2018ko martxoaren 12an, ikerketaren zuzendariak agindu bat igorri zuen, honako enpresa hauen egoitzak ikuskatzeko baimena ematen



zuen: SOCIEDAD FINANCIERA Y MINERA SA (FYM), HORMIGONES ENCARTACIONES SAU (ENCARTACIONES), HORMIGONES EUZKO SA (EUZKO) eta HORMIGONES ASKONDO SL (ASKONDO).

Horrez gain, HANSON HISPANIA SA (HANSON) enpresako Hormigoiaren Arloko buru den J.L.A. jaunaren jabetzako ibilgailu bat ikuskatzeko baimena ere ematen zuen.

**6.** LEAk, ikerketaren zuzendariaren Agindua betez, aurreko puntuan aipatutako egoitzetan eta ibilgailuan sartzeko baimena eskatu zion administrazioarekiko auzien epaitegiari. Baimena 30/2018 auto bidez eman zuen Bilboko administrazioarekiko auzien 3 zenbakiko epaitegiak, 2018ko martxoaren 16an.

**7.** Ikuskapenak aldi berean egin ziren 2018ko martxoaren 20an, eta ENCARTACIONES eta FYM enpresen kasuan, 2018ko martxoaren 21era arte luzatu ziren.

Egindako ikuskapenen akta jaso zen, eta baimendutako funtzionarioek eta ikuskapena egin zenean aurrean zegoen pertsonak sinatu zuten.

**8.** FYM enpresan egindako ikuskapenean, J.L.A. jaunak lan egiten zuen tokian, hain zuzen, ez zen grabatu inolako informazio digitalik, eta ikuskatzaileek ere ez zuten informaziorik jaso paperean.

**9.** EUZKO eta ASKONDO enpresen egoitzetan egindako ikuskapenean, paperean jaso zen dokumentazioa; egoitzetan aurkitutako jatorrizko dokumentuen kopia leial eta zehatzak. Euskarri elektronikoan aztertutako informazioari dagokionez, zenbait mezu elektroniko inprimatu ziren, eta paperean jasotako dokumentazioari atxiki zitzaizkion. Ez zen inolako kopiarik egin formatu elektronikoan.

**10.** ENCARTACIONES enpresaren egoitzan egindako ikuskapenean, paperean nahiz formatu elektronikoan jaso zen dokumentazioa; egoitzan aurkitutako jatorrizko dokumentuen kopia leial eta zehatzak.

## **II. MERKATUA**

### **1. Produktu-merkatua**

**11.** Zementuaren, hormigoiaren, morteroaren eta agregakinen merkatuak sartzen dira.



**Zementua** zenbait material prozesatzearen ondorioz eskuratzen den eraikuntzako oinarritzako materiala da. Konglomeratzaile hidraulikoa denez, urarekin edo agregakinekin nahasten denean gogortzen da.

Zementutik eratorritako produktuak, hala nola hormigoia, produktu prefabrikatuak eta morteroak, ezinbestekoak dira portuak, errepideak, presak, zubiak, etxebizitzak, ospitaleak, eskolak eta abar eraikitzeko.

**12. Hormigoia** zementua, agregakin lodia, hondarrak, adizioak, gehigarriak eta ura nahastuta eskuratzen den eraikuntzako materiala da.

Nahasketa egiteko, eskuragarri dauden osagaiak hautatu (zementua, agregakinak, ura eta gehigarriak) eta masa moldagarria sortzeko beharrezko kantitateak neurtu behar dira. Masa hori molde edo kofratuak betetzeko erabiltzen da, eta, abiadura egokian gogortzen denean, zurruntasun atzerazina hartzen du, baita erresistentzia, elastikotasuna, iraunkortasuna, dentsitatea eta bolumen-egonkortasuna ere.

Hormigoia egiteko erari erreparatuta, Europako Batzordeak eta MLBNk bi mota bereizi dituzte: obrako edo *in situ* hormigoia eta hormigoi industrialia. Azken horren barruan ere bi hormigoi mota bereizi dira: prestatua (ready-mix) eta lehorra. *In situ* hormigoia egiteko (obrak hormigoi edo hormigoi tradizionala), eskulan asko behar da, eta gainera, ez da kalitate homoginoa lortzen. Hormigoi mota hori obran bertan egiten da, baina bere kostu eta kalitateagatik, ezin da eraikuntza-elementu guztietan erabili, eta, horregatik, azkartasuna eta kalitatea ezinbestekoak ez direnean edo behar den kantitatea oso handia ez denean erabili ohi da.

**Hormigoi industrialia** da gehien saltzen den hormigoia; zehazki, «hormigoi prestatua». Ekoizpen-instalazioetan nahasten da produktua, eta, gero, hormigoi-kamioietan eramaten da erabiliko den tokira. Hormigoi mota hori erdi heze merkaturatzen da. Zementuaz eta agregakinez gain, urarekin, gehigarriekin eta adizioekin egiten da, eta hormigoia ekoizteko zentrolean oso modu zehatzean nahasten dira. Oso produktu galkorra da, gehigarri mota batzuk ez dituenek denbora oso gutxian fraguatzen baita (2 ordu baino gutxiago); beraz, garrantzi handia du hormigoi mota hori non prestatzen den —alegia, zentralaren kokapen geografikoak— eta obrak non dauden.

**13. Morteroa** aglomeratzaile bat (zementua eta/edo karea) agregakinekin eta urarekin nahastuta lortzen den eraikuntzako materiala da. Besteak beste, obretako harriak edo adreiluak batzeko erabiltzen da, baita luzitu eta entokatzeko ere.

**14. Agregakinak** material granularrak dira (harri birrindua, legarra, hondarra), eta oinarri gisa erabiltzen dira eraikuntzaren aplikazio askotan; adibidez, eraikinen eta obren zimenduak prestatzeko eta hormigoia, morteroa eta asfaltoa ekoizteko. Lehen



aipatutako estatu eta erkidego mailako batzordeen arabera, produktu-merkatu bakarra osatzen dute agregakin mota guztiek.

## 2. Merkatu geografikoa

**15. Zementua:** Lehen, Europako Batzordearen arabera, zementu grisaren merkatu geografikoa (gutxienez) estatu mailakoa zen, baina lehia-baldintzak ere aztertu ditu estatu kideetako eskualdeetan eta, berriki, zementu-planten inguruan<sup>1</sup>. Esaterako, COMP/M.7054 – CEMEX / HOLCIM ASSETS kontzentrazio-prozeduran, Europako Batzordeak adierazten du zementuaren merkatu geografikoa zementu-plantaren inguruko 150 km-ko erradioa hartzen duela<sup>2</sup>.

LBNk (MLBNren aurrekoa) zioen estatu eta erkidego mailako praktika erabakitzailearen arabera, zementuaren erreferentziazko merkatu geografikoa estatu mailakoa nahiz erkidego mailakoa izan daitekeela (hainbat autonomia-erkidego barne) baita autonomia-erkidego bakar bati mugatuta egon ere<sup>3</sup>.

**16. Hormigoia:** Bai Europako Batzordearen arabera, bai estatu mailako lehiaren arloko agintarien arabera, hormigoi prestatua hornitzeko, gehienezko distantzia mugatu bat behar da hormigoia egiten den plantatik hormigoi hori erabiliko den tokiraino (herri-lana edo eraikingintza). Hori dela eta, hormigoi prestatuaren merkatua, funtsean, bertatik bertarakoa da, nahiz eta, kasu batzuetan, esparru handiagoak jarri diren, besteak beste, lehia-baldintza homogeneousak dituzten tokiko merkatuen artean gainjartzerik jazo ez dadin.

Lehiaren Espainiako Agintaritzaren irizpideen arabera, tradizioz, probintzia izan da erreferentziazko eremu geografikoa, nahiz eta, kasu batzuetan, eremu txikiagoak (20-30 km-ko erradioa) nahiz handiagoak hartu dituen. Nolanahi ere, agregakinak ateratzen diren harrobien eta hormigoia ekoizten den zentralaren kokapenek garrantzi handia dute produktuaren kostuari dagokionez, agregakinen garraioak eragin handia baitauka hormigoiairen prezioan. Horren ondorioz, nolabaiteko mendetasuna dago hormigoi-zentralen eta hurbilen dauden harrobien artean.

Bestalde, COMP/M.7054 – CEMEX / HOLCIM ASSETS kontzentrazio-prozeduran, Europako Batzordeak iritzi zuen hormigoi prestatuaren merkatu geografikoa

---

<sup>1</sup> Ikusi gai hauek:

COMP/M.6153 - Anglo American/Lafarge/JV, 30-32 paragrafoak. Eskuragarri hemen: [http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m6153\\_20110516\\_201220\\_1841637\\_EN.pdf](http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m6153_20110516_201220_1841637_EN.pdf)

COMP/M.2317 - Lafarge/Blue Circle (II), 8. eta 9. paragrafoak. Eskuragarri hemen: [http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m2317\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m2317_en.pdf)

<sup>2</sup> COMP/M.7054 – CEMEX / HOLCIM ASSETS gaia, 63. paragrafoa. Eskuragarri hemen: [http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m7054\\_20140909\\_20682\\_4001455\\_EN.pdf](http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m7054_20140909_20682_4001455_EN.pdf)

<sup>3</sup> MLBNren ebazpena (S/DC/0525/14 ZEMENTUAK espedientea)



ekoizpen-plantaren inguruko 25 km-ko erradioa hartzen duela<sup>4</sup>: Aurretik hartutako beste erabaki batzuetan, Batzordeak hormigoi-planta batetik 15-40 km-ra bitarteko eremu geografikoa proposatu zuen<sup>5</sup>.

**17. Morteroa:** Aipatutako COMP/M.7054 – CEMEX / HOLCIM ASSETS gaian, LBNk adierazi zuen mortero industrialaren eremu geografikoa ekoizpen-plantatik 80 eta 120 km bitarteko erradiokoa zela. Europako Batzordeak, aurretik hartutako erabakietan, kontuan izan zuen 120 km-ko erreferentziako tokiko/eskualdeko merkatu bat zegoela<sup>6</sup>.

**18. Agregakinak:** Europako Batzordearen arabera, agregakinen merkatua toki mailakoa da (30 milia; hau da, 48 km, horniketa-iturritik), produktuaren garraio-kostuak direla eta; baina, kasu batzuetan, merkatua estatu mailakoa dela iritzi du, agregakinen merkatarien jarduerako eremu geografikoak gainezartzen baitira<sup>7</sup>. LBNk horniketa-iturritik 50 km eta 80 km-ko erradioak hartu zituen kontuan.

### III. ESKAINTZAREN ANALISIA

**19.** Merkatuan, integrazio bertikal handia dago, hormigoia hornitzen duten enpresak lehengaien hornitzaileen mende baitaude. Hala, hormigoi-hornitzaile askok agregakinak ateratzeko harrobiak dituzte; edo bestela, produktu hori hornitzen duten enpresak eta/edo zementua hornitzen duten enpresen mendeko enpresak.

**20.** Zementuari dagokionez, Oficemenek (Espainiako zementugileen elkartea) 2015ean egindako Espainiako zementuaren sektorearen urtekarian jasotzen denaren arabera, erdiko zonan ekoizten da zementu bolumenik handiena; 3,44 milioi tona,

<sup>4</sup> COMP/M.7054 – CEMEX / HOLCIM ASSETS gaia, 320. paragrafotik 325. paragrafora. Eskuragarri hemen:

[http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m7054\\_20140909\\_20682\\_4001455\\_EN.pdf](http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m7054_20140909_20682_4001455_EN.pdf)

<sup>5</sup> Ikusi gai hauek:

COMP/M.2317 - Lafarge Blue Circle (II), 11. paragrafoa. Eskuragarri hemen: [http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m2317\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m2317_en.pdf)

COMP/M.3572 – CEMEX/RMC, 24. paragrafoa. Eskuragarri hemen: [http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m3572\\_20041208\\_20310\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m3572_20041208_20310_en.pdf)

COMP/M.4719, HeidelbergCement/Hanson, 21. eta 29. paragrafoak. Eskuragarri hemen: [http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m4719\\_20070807\\_20310\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m4719_20070807_20310_en.pdf)

<sup>6</sup> Ikus COMP/M.1779 - Anglo American/Tarmac gaia, 23. paragrafoa. Eskuragarri hemen: [http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m1779\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m1779_en.pdf)

<sup>7</sup> Ikusi gai hauek:

COMP/M.3267 - CRH/CEMENTBOUW kasua. Eskuragarri hemen: [http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m3267\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m3267_en.pdf)

COMP/M.3141 – CEMENTBOUW / ENCI / JV. Eskuragarri hemen: [http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m3141\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/competition/mergers/cases/decisions/m3141_en.pdf)



hain zuzen. Horren ostean, mendebaldeko zona eta Andaluzia daude; 2,79 milioi tona eta 2,61 milioi tona ekoizten dituzte, hurrenez hurren. Jarraian, ekoizpen bolumen pixka bat txikiagoarekin, Katalunia dago: 2,28 milioi tona ekoizten ditu. Eta azkenik, iparraldeko zona, 1,66 milioi tonako ekoizpenarekin<sup>8</sup>.

Erdialdeko zonaren eta Kataluniaren kasuan, ekoizpen-zifra horiek 2014. urtean erregistratutakoak baino handiagoak dira. Hala ere, gainerako zonetan, aurreko urteko zifrekin alderatuta, beherakada erregistratu da. Hala, mendebaldeko zonako ekoizpena % 2,1 jaitsi zen; **iparraldeko zonakoa, % 1,3**; eta, azkenik, Andaluziako zementu grisaren ekoizpen bolumena % 0,8 murriztu zen<sup>9</sup>.

**21.** Hormigoiari dagokionez, Estatuko hormigoi prestatuaren ekoizpena 16.286.002 m<sup>3</sup>-koa izan zen 2015ean; hau da, aurreko urtekoa baino % 2,2 gehiago. Euskal Autonomia Erkidegoari 1.259.900 m<sup>3</sup> dagozkio; alegia, guztizkoaren % 7,7<sup>10</sup>.

ANEFHOP (Hormigoi Ekoizleen Espainiako Elkarte) enpresarekin kidetutako enpresek estatuan ekoitzi zen hormigoi prestatuaren % 57 ekoitzi zuten, eta Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpenaren % 66.

## 1. Zementuaren sektorea, EAEn

**22.** Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), hiru zementu-fabrika daude. Horietako bat Lemoan dago (Bizkaia), eta CEMENTOS LEMONA SA enpresarena da. Beste biak, Añorgan (Gipuzkoa) eta Arrigorriagan (Bizkaia) kokatuta, SOCIEDAD FINANCIERA Y MINERA SA (FYM) enpresarenak dira, zeinak Malagan duen egoitza soziala.

Bai CEMENTOS LEMONA bai FYM daude OFICEMEN-ESPAINIAKO ZEMENTUGILEEN ELKARTEARI kidetuta.

**23. CEMENTOS LEMONA** lau negoziotan dihardu: zementua, morteroa, hormigoia eta agregakinak.

**Zementua:** CEMENTOS LEMONA SA 1917. urtean sortu zen, eta Lemona Taldeko enpresa nagusia da. Enpresa-taldea hormigoi-, harrobi- eta mortero-enpresek osatzen dute, eta eraikuntzaren sektorerako produktu mota ugari eskaintzen ditu.

2006an, CEMENTOS PORTLAND VALDERRIVAS SAK CEMENTOS LEMONA SAren %100a erosteko eskaintza publikoa egin zuen, eta hala, sozietate horren %

<sup>8</sup> Erdialdeko zona: Gaztela-Mantxa, Valentziako Erkidegoa, Extremadura, Madrilgo Erkidegoa eta Murtzia.

Iparaldeko zona: Aragoi, Errioxa, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoa.

Mendebaldeko zona: Gaztela eta Leon, Galizia, Asturias eta Kantabria.

<sup>9</sup> [https://www.oficemen.com/reportaje.asp?id\\_rep=123](https://www.oficemen.com/reportaje.asp?id_rep=123)

<sup>10</sup> [http://www.anehop.com/pdf/PRODUCCIONES/InformeCoyuntura\\_2015.SNHFMZFP.pdf](http://www.anehop.com/pdf/PRODUCCIONES/InformeCoyuntura_2015.SNHFMZFP.pdf)



30,72ko kontrola izatetik, enpresaren kapitalaren % 96,06ko partaidetza izatera igaroda.

2013an, CEMENTOS PORTLAND VALDERRIVAS enpresak aktiboen *swapa* egin zuen (CRL eraikuntza-materialen enpresa irlandarrarekin, GRUPO LEMONA aldatu zuen UNILAND enpresaren % 26ren truke), eta, hala, CEMENTOS PORTLAND VALDERRIVASek CEMENTOS LEMONA eman eta UNILAND zementu-fabrika katalanean zuen partaidetza handitu zuen (% 99,99).

Horren ondorioz, CEMENTOS LEMONA Irlandako CRH taldearena da, 2013. urtetik. Egoitza Bilbon dago, Urkixo zumarkaleko 10.ean, 2. solairuan.

**Morteroa:** MORTEROS BIZKOR SL sozietateak lehorrean ekoizten du CEMENTOS LEMONAren aurretik nahastutako morteroa.

**Hormigoia:** ÁRIDOS Y CANTERAS DEL NORTE SA (ARCANOR SA) sozietateak ekoizten du CEMENTOS LEMONA SAren hormigoia. Gainera, Bizkaiko (Asua, Gallarta, Apario, Orozko eta Galdamesko plantak) eta Kantabriako (Muñorroderoko planta) ekoizpen-zentroak kudeatzen ditu.

**Agregakinak:** ÁRIDOS Y CANTERAS DEL NORTE SAK (ARCANOR SA) mota askotariko agregakin-harrobiak ustiatzen ditu. Agregakin mota hauek dituzte: kareharrizko agregakinak, Aparion, Galdamesen, Orozko eta Muñorroderon; agregakin basaltikoak, Errigoitin; eta agregakin silizeoak eta harri ornamentala, Muñorroderon.

**24. FYM** Alemaniako HEIDELBERGCEMENT taldeko filialetako bat da, azken horrek, 2016. urtean, GRUPO ITALCEMENTI erosi zuenetik.

HEIDELBERGCEMENT elkarteak bi filial ditu Espainian: FYM eta HANSON HISPANIA SA (hormigoitari buruzko apartatuan emango da xehetasun gehiago).

FYM enpresak zementuaren, hormigoi prestatuaren, morteroaren eta agregakinen sektoreetan dihardu.

**Zementua:** FYM enpresak hiru zementu-planta ditu; bat, Malagan, eta bi, EAEn. EAEn zementu-fabrikak CEMENTOS REZOLA enpresarenak ziren; AÑORGAN (Gipuzkoa) eta ARRIGORRIAGAN (Bizkaia) zituen plantak.

Hau izan da CEMENTOS REZOLA enpresaren bilakaera, 80ko hamarkadatik gaur egunera:

- 1989an, CIMENTS FRANÇAIS enpresak CEMENTOS REZOLA erosi zuen.





- 1992an, ITALCIMENTI GROUP enpresak CIMENTS FRANÇAIS hartu ondoren, REZOLA ITALCIMENTIren filial bihurtu zen.
- 1994an, SOCIEDAD FINANCIERA Y MINERA SA enpresarekin fusionatu zen CEMENTOS REZOLA, eta, hala, ITALCEMENTI GROUP taldearen Espainiako filiala osatu zuen; alegia, FYM taldea.
- 2016ko uztailaren 1ean, HEIDELBERGCEMENT enpresak ITALCEMENTIren % 45 erosi zuen. HEIDELBERGCEMENT eta ITALCEMENTI enpresa-taldea munduko agregakin-ekoizle nagusia da; bigarren zementu-ekoizlea eta hirugarren, aurretik nahastutako hormigoian.

### **Hormigoia:** Hauek dira ekoizpen-zentroak:

- FYM - Kukularrako planta - Sakoni auzoa z/g, 48950 Erandio, Bizkaia
- FYM - Gernikako planta - Txaporta industrialdea, Goikoibarra kalea 45, 48300 Gernika-Lumo, Bizkaia
- FYM - Mañariako planta - BI-623 errepidea z/g, Aldabarrena auzoa, 48212 Mañaria, Bizkaia

### **Agregakinak:** Hauek dira ekoizpen-zentroak:

- FYM - Mañariako harrobia - BI-623 errepidea z/g, Aldabarrena auzoa, Mañaria, Bizkaia
- FYM - Langraizko harrobia - Iruña Okako udal-mugartea z/g, 01230 Langraiz Oka, Araba
- FYM - Castrobartoko harrobia, Burgos
- FYM - Andaluziako harrobiak, Arcos de la Frontera, Taralpe eta Manilva

### **Morteroa:**

- Utrerako harrobia / Manilvako mortero lehorreko planta (Malaga)
- Alhaurín de la Torreko planta (Málaga)

## **2. Zementuaren sektorea, EAEn. ANEFHOP enpresarekin kidetutako enpresak**

### **25. HANSON HISPANIA SA<sup>11</sup>**

Britainia Handiko Hanson taldearen barruan dago; eta Hanson, era berean, Alemaniako HEIDELBERGCEMENT taldearen barruan dago 2007. urtetik.

Espainiako hormigoi prestatua eta agregakinak ekoizten dituen enpresa garrantzitsuenetariko bat da HANSON. CANTERAS MECÁNICAS CÁRCABA SAU, J. RIERA SA eta HORMIGONES Y ÁRIDOS SAU agregakinen bi filial ditu, bai eta ÁRIDOS SANZ SAU legar-hobia ere.

J.L.A. da HANSON HISPANIAko Hormigoia Arloko burua. Horrez gain, ANEFHOP EUSKADiko kudeaketa-batzordeko burua da.

<sup>11</sup> <http://www.hanson.es>



### **Hormigoia:**

HANSONek Espainiako hiri nagusietan gauzatzen du bere jarduera. Enpresaren 18 plantak Katalunian, Balearretan, Asturiasen, EAEn eta Aragoian aurkitzen dira.

EAEko hormigoi-plantak Zaramillon eta Asua-Erandion daude:

HANSON (**Zaramilloko hormigoi-planta**, Andaroleta pasabidea z/g, Zaramillo)

HANSON. (**Asuako hormigoi-planta**, Fano auzoa 5, Asua-Erandio)

**Agregakinak:** HANSONek mota askotariko legar-hobi eta harrobietako agregakinak hornitzen ditu –kareharrizkoak, silizeak edo granitoak–, neurriak askotarikoak –fillerrak edo 9000Tm-ko harri-lubetak– eta eraikuntzako erabilera askotarako: betegarrietarako materialak eta balio erantsi handiko produktuetan –hala nola hormigoia, nahaste bituminosoak edo balastoa– erabiltzeko kalitate handiko agregakin garbiak.

Bere harrobiak Madrilen, Katalunian, Aragoian, Gaztela eta Leonen, Asturiasen eta Euskal Autonomia Erkidegoan.

Hau da EAEko harrobia: HORMIGONES Y ÁRIDOS SAU (HORYASA) (Andaroleta pasabidea z/g, Zaramillo/Güeñes)

**26. ÁRIDOS Y CANTERAS DEL NORTE SA (ARCANOR SA)** sozietateak ekoizten du Cementos Leona SAREN hormigoia. Gainera, Bizkaiko (Asua, Gallarta, Apario, Orozko eta Galdamesko plantak) eta Kantabriako (Muñorroderoko planta) ekoizpen-zentroak kudeatzen ditu<sup>12</sup>.

**27. HORMIGONES PREMEZCLADOS ALAVA, SA** (Vitoria-Gasteiz)

**28. HORMIGONES ZALDIARAN, SL** (Vitoria-Gasteiz)

**29. NOVHORVI SA** (Vitoria-Gasteiz). CEMENTOS PORTLAND VALDERRIVAS enpresa-taldearen partaidetza duen enpresa<sup>13</sup>

**30. ASFALTOS Y HORMIGONES AUBIDE SL** (Durango)

**31. ATXA-TXIKI SA** (Karrantza)<sup>14</sup>

<sup>12</sup> <http://www.lemona.com/es/hormigon/empresa.html>

<sup>13</sup> <http://www.valderrivas.es/es/cargarAplicacionCentroProductivo.do?identificador=155>

<sup>14</sup> <http://www.atxatxiki.es>



- 32. CANTERA CARRANZA-KARRANTZA HARROBI SL** (Karrantza)
- 33. HORMIGONES ARRIGORRIAGA SL** (Arrigorriaga)<sup>15</sup>
- 34. HORMIGONES ASKONDO SL (AMANTEGI TALDEA)** (Mañaria)<sup>16</sup>
- 35. HORMIGONES DE BASURTO SA** (Bilbo). 2 harrobi dituzte; bat, Bilbon, eta bestea, Santulláñen (Kantabria)<sup>17</sup>
- 36. HORMIGONES DE ZAMUDIO SA (HORZASA)** (Zamudio)<sup>18</sup>
- 37. HORMIGONES ENCARTACIONES SA** (egoitza Bilbon du; planta, Ortuellan)<sup>19</sup>
- 38. HORMIGONES EUZKO SA (AMANTEGI TALDEA)** (Durango)<sup>20</sup>
- 39. HORMIGONES SOPUERTA SL** (Sopuerta)
- 40. HORMIGONES VASCOS SA** (3 planta ditu: Bilbon, Basaurin eta Leioan. Bulegoak Poza Lizentziatuaren kalean daude)<sup>21</sup>
- 41. OGERCO SA** (Santurtzi)
- 42. AIZKIBEL SA (CALCINOR taldekoa)** (instalazioak ditu Urnietan, Albizturren eta Altzon)<sup>22</sup>.

Hauek dira CALCINOR taldeko enpresak: Calera de Alzo (Altzo), Cales de Llerca (Katalunia), Andaluza de Cales, Cales de Castilla, Cales de la Plana (Valentziako Erkidegoa), Dolomitas del Norte (Kantabria), Morteros Calhidro (Altzo), Refractarios Kelsen (Aduna), Cantera de Kanpazar (Arrasate), Kobate eta Kobaundi (Arrasate), Grupo Campezo (Donostia), Yesos Albi (Burgos), Baunit (isolamenduan espezializatutako enpresa).

---

<sup>15</sup> <http://www.harrigorriaga.com>

<sup>16</sup> <http://www.amantegi.com>

<sup>17</sup> <http://www.hormigonesbasurto.com>

<sup>18</sup> <http://www.horzasa.com>

<sup>19</sup> <http://www.hormigonesencartaciones.com>

<sup>20</sup> <http://www.amantegi.com>

<sup>21</sup> <http://www.hormigonesvascos.com>

<sup>22</sup> <https://www.calcinor.com/eu/>



**43. AIZKO SA** (Deba, Gipuzkoa)

**44. CANTERA DE CAMPANZAR SA (CALCINOR taldekoa)** (Arrasate)<sup>23</sup>.

**45. HORMIGONES DE YANCI SA** (Irun)

Hormigoi-instalazioak ditu Oiartzunen, Irungo Bentetan, Igantzin (Nafarroa) eta Almandozen (Nafarroa).

Bere webgunean jasotzen denaren arabera, Donostiako CALCINOR enpresa-taldearekin kide-tuta dago, BURAZ SLren bitartez (dagoeneko ez da existitzen); Iruñeko PORTLAND taldearekin, HORMIGONES BAZTAN SLren bitartez, eta GRUPO FINANCIERA Y MINERA SArekin, HORMIGONES TXINGUDI SLren bitartez.<sup>24</sup>

**46.-HORMIGONES EKARRI SA** (Donostia)<sup>25</sup>

**47.- HORMIGONES KOBANDI SL** (CALCINOR taldekoa) (Arrasate)<sup>26</sup>

**48.- HORMIGONES OIARTZUN SA** (HORMIGONES YANCI enpresakoa) (Oiartzun)<sup>27</sup>

**49.- HORMIGONES OÑATI SA** (Oñati)

**50.- HORMIGONES ZUMÁRRAGA SA** (Ezkio, Gipuzkoa)

## IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1. Aztertutako jokabidea

**51. LDLren 1. artikulua** honako hau xedatzen du:

Debekatuta dago taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartua edo nahita paraleloa den praktika oro, horien helburua hau bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea (...).

<sup>23</sup> <https://www.calcinor.com/eu/>

<sup>24</sup> <http://www.hyanci.com>

<sup>25</sup> <http://www.hormigonesekarri.com>

<sup>26</sup> <https://www.calcinor.com/eu/>

<sup>27</sup> <http://www.hyanci.com>



**52.** Ikuskapenetan hartutako dokumentazioan, ikus daiteke hartu-emanak eta informazio-trukeak egon direla; adibidez, hormigoia-aren prezioaren inguruko informazioa trukatu da lehiakideen artean, eta horrek, hasiera batean, LDLren 1. artikulua kontrako jarrera du.

Hala ere, ikusi da enpresen artean trukaturako informazio horrek akordioa edo hitzarmenaren **justifikazio alternatiboa** izan dezakeela eta merkaturak banatzen edo prezioak adosten ari ez direla.

**53.** Hala, ENCARTACIONES-en hartutako dokumentazioaren artean, enpresa horren eta HORMIGONES ASKONDO enpresaren –AMANTEGI enpresa-taldekoa– arteko mezu elektronikoak daude. Mezu horiek Bilboko portuko lanetako hormigoia emateari buruzkoak dira, eta, besteak beste, prezioa eta gai teknikoak aipatzen dira. Dena den, mezu horiek justifikatuta daude, eta ez dira legez kontrakoak; izan ere, bi enpresak lizitazio horretarako hormigoia emateko eskaintza bateratua prestatzeko dokumentazioa egiten ariko lirateke. Espedienteko agiri batek egiaztatzen du aldi baterako enpresa-elkarte gisa aurkeztu zutela «*Bilboko Portuko Agintzaritzako instalazioetan nahastu aurreko hormigoia hornikuntza: 2017. urtea*» lizitaziorako eskaintza.

Ikuskapen-aktetan jasotzen den moduan, ohikoa da obra zibil handietan, hala nola Bilboko portuko obretan (lizitazioetako batean 36.000 m<sup>3</sup> eman behar dira 6 hilabeteetan), hormigoi-hornitzaile bat edo gehiago behar izatea, hornikuntza bermatzeko. Merkatuaren azterketan azaldu den moduan, denbora gutxian eman behar den produktua da, eta planta bakar batek, beharbada, ez du hornikuntza egiteko gaitasun nahikoa. Gainera, garrantzitsua da plantak, gehienez ere, 50 km-ra egotea –lizitazio batzuetan, hala nola Bilboko portukoan, beharrezkoa da planta bat obra egiten ari den tokitik 25 km baino gutxiagora izatea–, eta hori dela eta, enpresa lehiakideek elkarlaneko akordioak egiten dituzte eta/edo aldi baterako enpresa-elkarteak sortzen dituzte.

**54.** Ohikoa da, baita ere, bezeroak hornitzeko hormigoi nahikoa ez izateagatik enpresa lehiakideei hormigoia eskatzea. Batzuetan, hormigoia-aren fraguatzea dela eta, obra baterako kontraturatutako hornitzaileak ez dauka hormigoi kantitate nahikoa behar bezain azkar hornitzeko, eta kasu horietan, hornikuntza eskatu eta adostutako prezioa ematen dio enpresa lehiakideari. Hori, baita ere, merkatuaren ezaugarrien ondorioz gertatzen da.

**55.** Horrez gain, enpresa lehiakideen artean prezioak bidaltzeko mezu elektronikoak daude. Horiek aztertu ondoren, egiaztatuta da enpresa lehiakide baten prezioak ez dituela lehiakide batek bidali, eraikuntza-enpresa batek baizik. Beraz, badirudi eraikuntza-enpresarentzako prezio onena lortzen saiatzeko negoziazioa dela



(kontraeskaintza), eta ez direla ez prezioak adosten ez merkatua banatzen. Gainera, mezuak 2012. urtekoak direnez, arau-haustea jarraitua dela egiaztatzen ez bada –ez da egiaztatu–, jarrera preskribatuta egongo litzateke.

**56.** Bestalde, mezu elektronikoko batzuetan, aurkitu da bilerara deitu direla enpresa lehiakideak. Deitu diren enpresen artean HANSON eta ENCARTACIONES daude.

Hala ere, hartutako dokumentazioaren azterketa bateratua egin ondoren, ondorioztatu da bilera horiek ANEFHOP elkarteak hasitakoak direla.

Elkarte horrek, intrusismoa edo ondare-erreklamazioak aurkeztea ekiditeko jarduketak egiteaz gain, «Legez kanpoko eta obretan dauden zentralen aurkako jarduketak» izena ematen dieten jarduketak egiten dituzte. Elkartearen arabera nahitaezko baimena ez izateagatik edo beste arrazoi batzuegatik merkatuan legez kanpo jarduten duten enpresei eta obrei jarraipena egiteko jarduketak dira. Kasu horietan, elkartearen harremanetan jarri ohi da administrazio eskudunarekin horren berri emateko eta praktika hori eteteko. Eta horren berri eman zitzaizkion kideei.

Hain zuzen ere, elkarteak 2015eko uztailaren 8an Durangon egin zuen eta egindako ikuskapenetako batean eskuratutako bilkurako aktan ikus daiteke hori. Akta horretan agertzen denaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Kudeaketa Batzordeko ordezkariak HANSON enpresako J.A.I. eta ENCARTACIONES enpresako A.B. ziren, besteak beste.

Ondorioz, kontratu horien inguruko mezu elektronikokoak LDLren 1. artikuluan sartu ahalko lirateke.

**57.** Beraz, espedientean jasotzen den informazioa eta egindako azterketa ikusita, ezin izan da egiaztatu ikuskatu diren enpresek prezioak adosteko edo merkatuak banatzeko jarduketarik egin duten.

## **2. Ebazpena emateko eskumena duen organoa**

**58.** LDLren 49.3 artikuluan xedatuenez, MLBNko Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, Lege horren 1., 2. eta 3. artikuluek debekaturiko jokabideak ustez izanaren ondoriozko prozedurak ez hastea erabaki dezake, baita horien jarduerak artxibatzea ere, baldin eta legea haustearen inguruko zantzurik ez dagoela irizten badio.

**59.** Bestalde, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 10. artikulua ezartzen dituen Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunen artean, ezartzen du administrazioak bere kabuz hasitako jarduketak edo salaketak



artxibatzea ebatzi behar duela, hala egin behar denean, zehapen-espediente bihurtu baino lehen.

**60.** Otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuak onetsitako Lehia Defendatzeko Erregelamenduaren (LDE) 25. artikulua ezartzen duenez, salaketa jarri izanak ez du esan nahi Ikerketa Zuzendaritzak ezinbestean zehapen-prozedura abiatu behar duenik. Prozedura ez irekitzeko erabakia salatzaileari jakinarazi beharko zaio, azalduz prozedura irekitzea zergatik ez den bidezko. Hala ere, jasotako salaketa anonimoa izan denez, ez da izapide hori egin behar.

Aipatutako lege-manuak eta orokorrean aplikatzekoak direnak ikusita, Lehiaren Euskal Kontseilu honek,

## V. EBAZTEN DU

**LEHENA.-** Zehapen-prozedurarik ez hastea eta salaketaren xede diren gertakariekin lotutako jarduketak artxibatzea, Bizkaiko herri-lanetarako hormigoia merkaturatzeari dagokionez.

**BIGARRENA.-** Ebazpen honen berri ematea Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritzari, eta interesdun guztiei jakinaraztea ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipin dezaketela EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita, bi hilabeteko epean.